

GEU elkartea
2016 urko memoria



FAMILIA GIROAN
EUSKARAZ
Igandeak Jai
Familia irteerak

2016. urteko saioen memoria

AURKIBIDEA

- **EGITASMOA**
- **2016 URTEKO SAIOAK**
 - **Urtarrilak 24 · Familia irteera · Printzipal Antzokia**
 - Printzipal Antzokian bisita gidatua eta antzezlanak
 - **Otsailak 13 · Familia irteera · Zaldondo**
 - Ihauterien museora bisita gidatua eta herriari bisita
 - **Otsailak 28 · Igandeak jai · Ikasbidea Ikastola**
 - 'Urtaroak Vivaldiren begietatik' eta urtaroen olinpiada jolasak
 - **Martxoak 13 · Familia irteera · Garaion**
 - 'Txiki txef Garaionen' pasta tailerra
 - **Martxoak 13 · Igandeak jai · Angel Ganivet ikastetxea**
 - 'Hodeia Magoa eta Tiritatxo' eta titere tailerra
 - **Martxoak 16 · Familia irteera · Playmobil**
 - 'Playmobil' erakusketara bisita
 - **Apirilak 10 · Familia irteera · Salburua**
 - Salburuko hezeguneetara bisita gidatua
 - **Apirilak 17 · Igandeak jai · Aranbizkarra ikastola**
 - 'Ikusi al duzu ilargia?' Eneko Etxegaraireren esku eta liburu tailerra
 - **Maiatzak 7 · Familia irteera · Leze / Errekaleor**
 - Ingurumen hezkuntza irteera
 - **Maiatzak 29 · Igandeak jai · Odon de Apraiz ikastola**
 - Bapatean Zirko 'Pon eta Pa' eta zirko jolasak
 - **Ekainak 12 · Igandeak jai · Lakuabizkarra ikastola · Ikasturte amaierako festa**
 - Patata Tropikala 'Azken eguzkilorea' ikuskizuna eta ginkana galeoian
 - **Uztailak 31 · Igandeak jai · Aihotz plazan**
 - Kiki eta Koko 'Parranda tutiplen', tailerrak eta txokolatada
 - **Irailak 18 · Familia irteera · Katedral zaharra**
 - Amabirgina Zuriaren katedralari bisita
 - **Irailak 25 · Igandeak jai · Adurtza ikastola**
 - 'Piraten liburu magikoa' eta liburu magikoa egiteko tailerra
 - **Urriak 16 · Familia irteera · Mendixur**
 - Mendi irteera
 - **Urriak 30 · Igandeak jai · Toki Eder ikastola**
 - 'Herriko Jaiak' Potxin eta Patxin
 - **Azaroak 12 · Familia irteera · Itzal titere tailerra**
 - Itzal titere tailerra eta gurasoentzako saioa
 - **Azaroak 20 · Igandeak jai · Umandi**
 - 'Zu eta ni sudurluze bi' Zirtaka eta jolas kooperatiboak
 - **Abenduak 13 · Familia irteera · KTD kartoi tailerra**
 - Animaliak eta apaingarriak kartoi birziklatuaz egiteko tailerra
 - **Abenduak 18 · Igandeak jai · Barrutia**
 - Tor magoa eta
 - Pertsonaia magikoen tailerra
- **BALORAZIO OROKORRA**

• IGANDEAK JAI • egitasmoa •

- Euskararen familia transmisioa lantzeko eta Gasteizko familia euskaldunen arteko loturak trinkotze asmoz GEU elkarteak ***‘IGANDEAK JAI. Familia giroan euskaraz’*** egitasmoa antolatzen hasi zen 2013ko irailean.
- 2013an egindako lau saioen arrakastaren ostean, 2014 eta 2015 urteetan IGANDEAK JAI egitasmoa urte osoko programa bezala garatu zuen GEU elkarteak, guztira 2014an 10 saio eta 2015ean beste 10 saio antolatuz.
- 2016 urtean bide beretik jarraitzea erabaki du GEU elkarteak, Gasteizko Udalaren, Arabako Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren konpromiso eta babesarekin.
- Aurten ere guraso elkarte eta auzo elkarteekin harremanetan jarri da GEU elkarteak ‘IGANDEAK JAI’ proiektua garatzeko. Hamar saioetatik bederatzi egin dira Gasteizko eskola ezberdinetan.
- Haurrei zuzenduriko ikuskizunak eta lantegiak uztartu dira hilero antolatu diren bi orduko emanaldi hauetan.
- Emanaldietan diziplina desberdinak aurkeztu dira: antzerkia, ipuin-kontalaria, magia, kontzertua, dantzaldia, literatura... Ikuskizun soila eskaini baino haurren eta gurasoen parte hartzea sustatu dituzten emanaldiekin osatu da IGANDEAK JAI egitasmoa.
- Tailerrek edota jolasek lotura dute ikuskizunarekin eta, era berean, familia osoa aktiboki parte hartzeko pentsatuak izan dira. Urtxintxako hiru hezitzaile ibili dira saio guztietan tarte hau dinamizatzen eta aurretik zehaztutako hizkuntza irizpideak aintzat hartu dituzte.
- Guraso euskaldunen parte hartzea eta inplikazioa bultzatzeko dinamika desberdinak proposatu dira, Horrela, guraso erdaldunek euren seme-alaben laguntza behar izan dute jolasean parte hartzeko edo tailerra garatzeko.

2016 URTEKO SAIOAK

Aurten hamar saio antolatu dira Gasteizko hainbat auzotan eta orotara 900 lagunetik gora bildu da IGANDEAK JAI egitasmoko saioetan.

Hamar saio horietako bat berezia izan da: Gasteizko Jaiei aurreko egunean Aihotz plazan antolatutakoak, hain zuzen ere. Azken hau Uztailaren 31an IGANDEAK JAI egitasmoa kalera ateratzea izan zuen helburu. Horretarako, Gasteizko Udalak Aihotz plazan Gasteizko Jaientzarako jartzen duen agertokia erabili da eta ‘Parranda tutiplen’ haur-berbena bertan garatu zen. Ostean lantegi ezberdinak eta txokolatada erraldoia antolatu zen.

• FAMILIA IRTEERAK • egitasmoa •

- 2016 urtean 'IGANDEAK JAI' egitasmoari beste ekimen bat gehitu zaio: 'FAMILIA IRTEERAK'. Egitasmo honek euskaraz garatutako egun osoko aisialdi proposamenen beharra asetzeko helburua du, izan ere, aurreko urteetan horrekiko interesa aurkeztu baitzuten IGANDEAK JAI saioetako parte hartzaileek.
- 2015 urtean lau familia irteera egin ziren, IGANDEAK JAI ekimenaren ekintza gehigarri bezala. Hauek izandako arrakasta ikusita, ekimen puntualetatik eskaintza egonkorra pasatzea erabaki zen.
- 'FAMILIA IRTEERAK' Gasteiz eta Arabako herri eta toki ezberdinak ezagutzeko aukerak bilatu ditu, horretarako elkarte eta ekimen ezberdinekin harremanak jorratuz.
- Irteera guztietan lantegiak edo bisita gidatuak egin izan dira, hauek garatzeko hezitzaile eta gida euskaldunak egon direla bermatuz.

2016 URTEKO SAIOAK

Aurten hamar irteera antolatu dira Gasteizen eta Gasteiz inguruko herri eta mendietan. Tailer eta bisita gidatu ezberdinak garatu dira, Gasteiz eta Arabako kultur ondarea familia giro euskaldunean gozatzea bermatuz. Orotara 130 pertsonak parte hartu dute irteeretan.

Bereziki azpimarragarria izan da Zalduodora egindako familia irteera, izan ere, irteera prestatu eta gidatzeko mintzalaguntzaile baten laguntza izan baitzen, giro paregabea sortuz eta museo zein herriari egindako bisita oso aktiboa izatea sustatuz.

• 2016 urtea SAIOZ SAIO •

URTARRILAK 24 Familia irteera PRINTZIPAL ANTZOKIA



Prezioa: 3 € pertsonako / Iraupena: 90 min / Adina: 7 urtetik gora

Izena emateko: www.gasteizkomintzalaguna.com / 640574996

* Irteeran parte hartzeko euskaraz komunikatzeko gaitasuna beharrezkoa da.



Bisita gidatua eta antzezlan Printzipal Antzokian

Antzerki eta antzoki baten sekretuak ezagutzeko aukera paregabea izan zen familia irteera hau. Txikiek zein helduek eserlekuetatik altxatu eta antzeztokian gertatzen den magia nondik datorren ikusi eta esperimentatu ahal izan zuten, lehenik eta behin bisita gidatu baten bitartez eta geroago aktoreekin batera antzezlan txiki bat prestatuz.

Balorazioa

*Parte hartzea: 21 pertsona. 9 ume + 12 heldu (plazak agortu ziren)

*Guraso zein umeek asko parte hartu zuten

*Bisita: oso interesgarria, entretenigarria eta parte-hartzailea. Urteko irteerarik onenetarikoa.

OTSAILAK 13 Familia irteera ZALDUONDO



Irteera: Forondako atea / Arriagako parkina 10.00etan (kotxez)

Izena emateko: www.gasteizkomintzalaguna.com / 640574996

* Irteeran parte hartzeko euskaraz komunikatzeko gaitasuna beharrezkoa da.



Ihauterien museoari bisita gidatua

Lazarraga-Amezaga jauregia erakargarria da oso. XVI. mendeko Errenazimentuko jauregi bat izanda, Zalduondoko museoa hartzen du barne.

Edukia heterogeneoa da eta eskualdeko historiaren, geografiaren, etnografikoaren, folklorearen eta artearen askotariko ikuspegiak ilustratzen ditu.

Bisitariak Done Jakue bideari lotutako mapak, planoak eta ilustrazioak ezagutu zituzten; baita garai desberdinetako oroitarri eta hilarriak biltzen dituzten erlijiozko artearen funtsak; zonako

biztanleen lehengo ohituren etxeko, laneko eta artzain espazioak; inauteri ospetsuen

txotxongiloak eta pertsonaiak; eta zeramika eta artisautzako piezen erakusketa bikaina ere, dena euskaraz gidatutako bisita batean.



Herriari bisita

Museoari bisita egin eta gero taldeak Zalduondo herria bisitatzeko denbora hartu zuen, haren eraikinak eta inguruak bisitatu. Besteak beste, oraindik martxan dagoen garbitegi historikoa bisitatu zen.

Balorazioa

*Parte hartzea: 15 pertsona. 8 ume + 7 heldu

*Oso irteera polita izan zen, bereziki azpimarragarria. Bertokoa den mintzalaguntzaile baten laguntzari ezker herria goitik behera ezagutu zen eta oso ondo pasa zuen jendeak.

OTSAILAK 28 Igandeak Jai IKASBIDEA ikastola

*‘Urtaroak Vivaldiren begietatik’ Zirtaka

Vivaldi musikagilearen “Lau Urtaroak” musika lanean oinarritutako antzezlan, urtaro bakoitzari eskainitako musikaz baliaturik, argi beltzaz prestatutakoa. Antzerki beltzaren magia eta musika klasikoa uztartzen dira, haurren ilusioa eta irudimena zabalduz. Ikuskizun arina, dibertigarria eta berritzailea.

*Urtaroen olinpiada jolasak

Urtaro ezberdinekin eta musikarekin lotutako jolasak antolatu ziren, denak jolas kooperatiboak eta guztiek, txiki zein nagusiek parte hartzeko modukoak.



Balorazioa

*Parte hartzea: 90 bat pertsona. 50 ume + 40 heldu

*Ikuskizun polita eta berezia izan zen, argiekin egindako jokoak orain arte ikusi gabe. Hala ere hainbat gurasok ez zuten iluntasuna errespetatu eta mugikorren argiarekin ikuskizuna ez zen guztiz ondo atera.

*Tailerra: gurasoek parte hartu zuten eta oso erantzun ona izan zuen.

*Iturribero Guraso Elkarteak eta Ikasbidea ikastolak hartu dute parte antolaketan.

MARTXOAK 13 Familia irteera GARAION



Izena emateko: zgll@geuelkarteak.eus / 640574996 / Euskaraz komunikatzeko gaitasuna beharrezkoa da.



‘Txiki Txef Garaion’ pasta tailerra

Garaionen bertan egin zen adin guztientzako egokia den tailer hau, paregabea familia giroan gauzatzeko. Euskara bidelagun tailerrera bertaratu ziren umeen eta nagusiek makarroiak egiten ikasi zuten, bakoitzak bere forma eta koloretakoak sortuz, etxean egindako makarroiak.

Balorazioa

*Parte hartzea: 12 pertsona. 7 ume + 5 heldu

*Parte hartzea ez zen espero zena bezain handia

izan. Honen arrazoi bi egon daitezkeela uste da: alde batetik ordutegia eta bestetik tailerrak parte hartzaileentzako 10€ko kostua izan zuela.

*Tailerra: lantegira jende gutxi joan bazen ere oso ondo garatu zen, batez ere familia giro euskalduna sortu zelako. Tokia dela eta bereziki gustura egon zen jendea.

*Garaion elkarteak hartu du parte antolaketan.

MARTXOAK 13 Igandeak Jai ANGEL GANIVET ikastetxea

‘Hodeia Magoa eta Tiritatxo’

Irrienlagunak klubaren eskutik, Hodei eta bere lagun Tiritatxorekin magiaren mundu miresgarrian sartzeko aukera izan zen martxoko saioa.

Haur eta heldu aho zabalik utziko zituen ilusioz beteriko saioa eskaini zen, irria eta jakin-mina sustatu zituen saioa.

Titere tailerra

Txontxongilo tailerra egin zen. Paper ezberdinak erabilia umeek haien gurasoen laguntzarekin “mobil”-ak gin zituzten horretarako irudi ezberdinak marraztu eta moztuz.

Balorazioa

*Parte hartzea: 100 bat pertsona. 45 ume + 55 heldu

*Ikuskizuna: ikuskizuna ondo egon zen baina magoaren jarrera batzuetan ez zen egokiena izan. Jendea gustura egon zen hala ere.

*Tailerra: zail xamarra umeak txikiak zirelako eta gurasoen laguntza behar zuten guraizeak erabiltzeko eta hezitzaileen laguntza estra behar izan zen.

*Angel Ganivet- Santa Lucía Guraso Elkarteak eta ikastolak hartu dute parte antolaketan.



MARTXOAK 16 Familia irteera PLAYMOBIL



"Click, 7,5 zentimetroko sorkuntzak" Playmobil erakusketari bisita gidatua

Playmobil clicken (lehen deitzen zitzairen bezala) erakusketa ikusgai egon zen Gasteizen hainbat astez. Guztira, 70.000 click baino gehiago, 14.000 piezak baino gehiagok osatuta, antzinako Erroma, Ipar Amerikako Gerra Zibila eta Waterlooko bataila bezalako eszenatan.

Fernando Martínez de Viñasprek diseinatu eta ekoiztako erakusketa honi euskaraz antolaturiko bisita gidatu bat egin zioten bertaratutako familiek.

Balorazioa

*Parte hartzea: 22 ume eta heldu (plazak agortu ziren).

*Bisita gidatu hau ez zegoen ikastaro hasierako plangintzan eta Vital Fundazioaren eskaintza baten ondorioz gauzatu zen.

*Oso harrera ona izan zuen ekimen honek.

*Bisita gidatuaz gain askoz jende gehiago zegoen aretoan eta ez zen nahi bezain ondo entzuten.

APIRILAK 10 Familia irteera SALBURUA



Salburuko hezeguneetara bisita gidatua

Udaberrian txoriak Gasteizko hezeguneetan erraz ikusterik dagoela GEU elkarteko kide batek gidatutako bisita egin zen. Ataria interpretazio zentroa eta hezeguneetako behatokitik hainbat hegazti ikusi ahal izan ziren, amiamokoa besteak beste, eta baita Txepetxa eraztuntze taldeko kideekin eraztuntze prozesua eta honen garrantzia ezagutu ahal izan zuten bisitariek.

Balorazioa

*Parte hartzea: 23 pertsona. 12 ume eta 11 heldu (plazak agortu ziren).

*Oso harrera ona izan zuen ekimen honek eta haur zein helduak oso gustura egon ziren.

*Eguraldi ona eginda behatokian jende asko zegoen eta, hurrengo baterako, beste toki batzuetatik hegaztiak behatzea hobe izan daitekeela iradokitzen da.

APIRILAK 17 Igandeak Jai ARANBIZKARRA ikastola

‘Ikusi al duzu ilargia?’ Eneko Etxegarairen esku

Ipuin askok daukate ilargia gai nagusi bezala. Ipuin horiek abiapuntutzat hartuta, ipuin kontaketa berezi bat egin zen saio honetan: pareta edo panel batean irudiak jarrita kontakizuna jarraituz eta marrazkilari baten irudiek liburua magiaz beteta.

Ipuina amaitzerakoan sorpresa berezi bat izan zen: umeak marrazki edo mural txiki bat osatu zuten.



Liburu tailerra

Tailer honetan zehar umeek haien orri-markatzaile propioa egin ahal izan zuten material ezberdinak erabiliz, horretarako ikuskizunean ikasitako teknikak erabili zituzten.

Balorazioa

*Parte hartzea: 37 ume eta 36 heldu.

*Ikuskizuna. Oso polita eta berezia, batez ere marrazkilariagatik. Umeak oso adi egon ziren eta bereziki polita ipungintza landu zelako.

*Tailerra: ondo egon zen. Ume eta gurasoek parte hartu zuten.

*Zuriber Guraso Elkarteak eta Aranbizkarra ikastolak hartu dute parte antolaketan.

MAIATZAK 7 Familia irteera LEZE/ERREKALEOR

Ingurumen hezkuntza tailerra

Atxipi Mendi Taldea eta Asparrena eta Gasteizko mintzalagunekin batera Lezera ingurumen hezkuntza irteera bat antolatu zen. Tamalez, eguraldiak ez zuen lagundu eta izen emandako asko atzera bota ziren eta plan aldaketa egin behar izan zen.

Errekalorri bisita

Mendi irteera bertan behera geratuta, atzera bota ez ziren familiak Errekaleor auzoa ezagutzeko aukera hartu zuten, izan ere, bertako jaiak izanda hainbat ekimen euskaraz garatu behar baitziren.



Balorazioa

*Parte hartzea: 6 pertsona (3 heldu eta 3 haur), eguraldia zela eta izen emate gehienak bertan behera geratu ziren egunean bertan.

MAIATZAK 29 Igandeak Jai ODON DE APRAIZ ikastola

Bapatean Zirko 'Pon eta Pa'

Pon ta Pa haurrentzako ikuskizunak zirkuaren magia eta umeen munduaren koloreak batzen ditu. Ikuskizun dinamiko eta goxoa, sorpresaz betea.

Pon-en urtebetetzearen aitzakiarekin, Pon ta Pak beraien mundu xeblearen parte izatera gonbidatzen dituzte umeak. Susto, korrikaldi, opari eta bizkotxo artean malabar, akrobazia eta xaboi ponpen unibertsoan murgildu ziren. Eusko Labeldun gereziak, alergia sendaezinak eta erremedio magikoak. Dena da posible, zirku eta antzerkia nahasten dituen ikuskizun honetan.



Zirko jolasak

Ikuskizunaren harira, ume eta nagusi zirko jolas ezberdinak garatu ahal izan zituzten tailerrean zehar, horretarako soinketa material ezberdinak erabiliz: skyline, uztailak, globoflexia, eta abar.

Balorazioa

*Parte hartzea: 150 ume zein heldu.

*Ikuskizuna: espero zen baino jende gehiago gerturatu zen eta antolaketarekin zenbait arazo egon zen, ume batzuk ikustaldia momentu puntual batzuetan oztopatu zutelako eta familiek honen ardura ez zutelako hartu. Bestela, ikuskizuna oso interesgarri eta dibertigarria izan zen.

*Tailerra: jende gehiegi egotean kudeaketa zaila izan zen. Adibidez, globoflexia gunean gurasoen laguntza ezinbestekoa izan zen tailerra garatu ahal izateko.

*Zokozorri Guraso Elkarteak eta Odon de Apraiz ikastolak hartu dute parte antolaketan.

EKAINAK 12 Igandeak Jai LAKUABIZKARRA ikastola

Ikasturte amaierako festa

Ikasturtearen amaiera eta uda garaia etorrera ospatzeko egun osoko jaia antolatu zen Lakuabizkarra ikastolan. Hortaz, gerturatu ziren guztiak egun osoko egitarau euskaldun zabalaz gozatu ahal izan zuten, besteak beste, Igandeak Jai ekimeneko ikuskizun eta tailerraz:

Patata Tropikala 'Azken eguzkilorea'

Baserriko Kattalin, herrira jaitsi eta bere lagun guztiak desagertu direla ohartuko da. Herrian ez du gertatu denaz inongo erantzunik topatuko.

Beraz, adorez bete eta Mari Jainkosari galdetzera abiatuko da, nahiz eta basoan betirako harrapatuta geratu daitekeela jakin.

Hemendik aurrera, Kattalin, Mitologian murgilduko da haziko den azken eguzkilorea topatzeko. Bertan, Mari, Basajaun, Tartalo, Galtzagorriak eta beste batzuk ezagutuko ditu.

Saio honek txotxongiloak, maskarak, antzerkia, umorea eta irudimena dantzan jartzen ditu, euskal kulturaren adierazgarria den mitologia landuz era berritzaile batean.



Lakuako Galeoian ginkana

Espero zen jende kopurua ez zenez lortu azken momentuan tailerra egokitu behar izan zen, baina hezitzaileek eta gurasoek hau asko erraztu zuten.

Balorazioa

*Parte hartzea: 30 ume zein heldu.

*Ez zen espero zen parte hartzaile kopurura heldu. Datak aproposenak ez direla ikusi da eta ekaineko saioa beste hilabete batean

gauzatzea baloratu beharko da.

*Eguzkilorea Guraso Elkarteak eta Ikasbidea ikastolak hartu dute parte antolaketan.

UZTAILAK 31 Igandeak Jai AIHOTZ PLAZA

Kiki eta Koko 'Parranda tutiplen'

Kiki, Koko eta Moko pailazoez adin guztietarako berbena eta animazio musikatua antolatu zuten. Bertan hainbat dantza, abesti ugari, joko ikusgarri eta mozorro pila egon ziren, denak emankizun parte-hartzaile baten testuinguruan.

Berbena eta animazio emankizun hau, bereziki, haurrentzat pentsatua dago, nahiz eta, bere dinamika integratzaileari esker, urtebetetik 99 urtera bitarteko guztiek har dezaketen parte.

Tailerrak eta txokolatada

Dantza eta kanta egin ostean gaztetxoek garatzeko hainbat aukera izan zituzten. Alde batetik, haien mozorro propioak egiteko aukera izan zuten, hartarako kareta txoko bat antolatu zelarik eta, bestetik, mural erraldoi bat egin zuten. Amaitzeko, txokolatada goxo bat antolatu zen.



Balorazioa

*Parte hartzea: 150 bat pertsona, haur eta heldu.

*Oso harrera ona izan zuen ekimenak. Jendea tantaka heldu zen, baina hasieratik eta hogeit minutura plaza bete zen. Egoera hau datak direla eta izan zela baloratzen da eta hurrengo urtetarako ordua berandutzea baloratu beharko da.

IRAILAK 18 Familia irteera KATEDRAL ZAHARRA



Amabirgina Zuriaren katedralari bisita

Katedral gotikoaren eraikuntzari buruzko ezagutza sakontzeko balio dute ibilaldi gidatu hauek eta Igandeak Jai ekimenara gerturatu zirenak Gasteizko Santa Maria Katedralaren eraikuntza-faseak, mendeetan izan dituen arazoak, egin diren ikerketa-lan arkeologikoak eta arkitektonikoak eta etorkizuneko proiektuak ezagutzeko aukera izan zuten,

euskaraz gauzaturiko bisita batean.

Balorazioa

*Parte hartzea: 11 ume eta 10 heldu (plazak agortu ziren).

*Oso harrera ona izan zuen ekimen honek eta haur zein helduak oso gustura egon ziren.

IRAILAK 25 Igandeak Jai ADURTZA IKASTOLA

'Pepitaren liburu magikoa' Ane, Monna, Oskola eta Karamarro

Ikuskizun honetan Oskola eta bere lagun Ane Monna eta Karamarroren historia ezagutu zuten gazte zein helduek. Kuban bizi den Oskolaren Pepita lehengusina laguntzera joaten direnean gure lagunek bizi dituzten abenturekin ederto gozatu zuten denek.

Liburu magikoa egiteko tailerra

Oskola eta bere lagunak abenturekin gozatzeko gaztetxoek haien liburu magiko propioa egiten ikasi zuten, guraso eta begiraleen laguntzaz.



Balorazioa

*Parte hartzea: 30 ume eta 40 heldu.

*Ikuskizuna: dibertigarria eta hezitzailea izan zen eta umeak oso gustora egon ziren.

*Tailerra: ume oso txikiei zaila egin zitzaien jarraitzea baina, orokorrean, familiak oso gustura egon ziren eta elkarrekin gauzatu zuten.

*Ikasberri Guraso Elkartek eta Adurtza ikastolak hartu dute parte antolaketan.

URRIAK 23 Familia irteera GARAIO EZAGUTUZ

Mendixurreko parke ornitologikoa

Geurekin mendira taldearekin batera antolatutako irteera izan zen hau, Mendixurreko parke ornitologikoa ezagutzeko helburu zuena. Uribarri-Ganboako urtegia, jatorriz artifiziala izanik ere, bertako hezegune esanguratsuenetako bat da ornitologiaren ikuspegitik begiratuta. Urtegiko ertzetatik oso eroso da hegaztiak ikustea, sarbide asko daudelako eta eremua 45 km-ko perimetroko berdegune batek inguratuta dagoelako.

Balorazioa

*12 pertsonak eman zuten izena.

*Hasiera batean eta izan ematei dagokienez harrera ona izan bazuen ere, irteera bertan behera geratu zen eguraldiagatik.

URRIAK 30 Igandeak Jai TOKI EDER IKASTOLA



‘Herriko jaiak’ Potxin eta Patxin

Potxin eta Patxin artistek tren bidaia baten amaieratzat hiria aukeratu dute. Bertan suhiltzaileen jarduna ezagutuko dute, zerbaitetan lagundu nahian une arriskutsuak igaroko dituzten zerbitzarien jardunaren berri ere izango dute eta kale ertzetan dauden musikariak eta abar luze baten partaide bihurtuko dituzte ikusleak.

Ipuin tailerra

Potxin eta Patxinen abenturak ezagututa, gaztetxoek haien historia eta abenturak ipuinetan islatzeko ipuin tailerra garatu zen.

Balorazioa

*Parte hartzea: 100 bat pertsona, haur zein heldu.

*Ikuskizun parte-hartale eta dibertigarria. Gazteen artean oso harrera ona izan zuen. Hala ere, zubia dela eta Igandeak Jai programako familia ohikoak ez ziren gerturatu eta beste batzuetan baino euskara gutxiago entzun zen.

*Leku-Eder Guraso Elkartek eta Toki Eder ikastolak hartu dute parte antolaketan.

AZAROAK 12 Familia irteera ITZAL TITERE TAILERRA

Itzal titere tailerra

Haurrek, beraien kabuz, material erraz eta erabilgarriez euren txotxongiloak sortzea izan zen tailerraren helburua, eta ondoren txotxongilo horiekin momentuan bertan jolastea, oihalaren atzean haiei bizitza emanez jolastuz. Irudimena lantzeko eta haurrek oso ezaguna ez den itzal txotxongiloen mundua ezagutzeko aukera bikaina!

Behin titereak eginda, haurrek sortutako titereekin antzerkia eskaini zieten haien gurasoei, dena euskaraz.

Gurasoen tailerra

Tailerraren lehen partean umeek haien kabuz garatu behar izan zituzten titereak eta, bitartean, gurasoekin euskararen inguruko sentsibilizazio saio dinamikoa eskaini zen.

Balorazioa

*Parte hartzea: 11 pertsona. 7 ume eta 4 heldu.

*Tailerra: umeak txikiegiak ziren arren gutxi izanik ondo moldatu zen titeregilea. Dena den, hurrengo baterako hobesten da familia osoak elkarrekin tailerrak gauzatzea.

*Gurasoekin tailerra: oso harrera ona izan zuen eta gurasoek asko eskertu zuten gaia landu ahal izatea.

AZAROAK 20 Igandeak Jai UMANDI IKASTETXEA

‘Zu eta ni, sudurluze bi’ Zirtaka

Norvegiako Trolls. Pertsonaia hauek Europako Mitologian oso tradizio handiko izakiak dira, eta bertoko haur guztiek beraien abenturak ezagutzen dituzte. Kasu honetan, antzezlanaren asmoa umeek Iparraldeko Herrietako pertsonaiak aprobetxatuz, haurrengandik hurbilekoak diren egoerak islatzea da. Dena den, zenbait estilo, batez ere, atrezzoari dagokionez, jatorrian diren bezala errespetatzen ditu, eta neurri handi batean pertsonaien beraien izaera ere aintzat hartzen ditu ikuskizunak.



Jolas

kooperatiboak

Behin ikuskizuna bukatuta hezitzaileen eskutik haur eta nagusi guztiek jolas kooperatiboetan parte hartu zuten. Tailer hau oso dinamikoa izan zen eta gurasoek asko inplikatu ziren.

Balorazioa

*Parte hartzea: 120 pertsona. Erdia baino gehiago umeak.

*Ikuskizuna: ikuskizun polita eta dibertigarria. Etorri ziren ume zein helduei asko gustatu zitzaizen eta aktoreekin hartu-emanen parte hartu zuten.

*Tailerra: jolas kooperatiboek oso ondo funtzionatu zuten eta gurasoek ondo parte hartu zuten. Tokia oso aproposa ikuskizuna eta jolasak gertu baina espazio ezberdinetan egin zirelako.

*Umandi ikastolak eta bertako guraso elkarteak hartu dute parte antolaketan.



AZAROAK 17 Familia irteera KTD kartoi tailerra



KTD kartoi tailerra

Gabonak gertu daudela aprobetxatuz familiek haien etxeko gabon apaingarriak kartoi birziklatuz egiten ikasi dute. Horretaz gain, animalia ezberdinak ere ekoitzi ahal izan dituzte. Eskulanak egiten ikasteko euskaraz gidatutako tailerra gauzatu da.

Balorazioa

*Parte hartzea: 9 pertsonak eman zuten izena baina 6 pertsona bakarrik agertu ziren egunean hainbat gaixotasun medio.

*Tailerra: oso ongi prestatutako tailerra izan zen eta bereziki egokia familia giroan lantzeko ume eta helduek elkarri laguntzeko aukera izan zutelako.

AZAROAK 20 Igandeak Jai UMANDI IKASTETXEA

Tor magoa

Tor magoaren ikustaldia txikienengan pentsatutako ikuskizuna da, ez baitira ikusle soil. Barre egin dute, harritu dira, magia ikusi eta, garrantzitsuena dena, magia egin dute giro euskaldunean eta familian.

Pertsonaia fantastikoen tailerra

Behin Tor magoaren turkoak txundituta, ume eta nagusiek haien magia propioa egiten ikasi zuten eta pertsonaia fantastikoak sortu zituzten material ezberdinekin: artileak, kartulinak, eta abar.



Balorazioa

- *Parte hartzea: 120 bat pertsona, haur eta heldu.
- *Ikuskizuna: oso ikuskizun polita eta egokia. Berezi parte-hartzailea.
- *Tailerra: azken momentuko gail aldaketa bat egin behar zan zen eta tailerrak ikuskizunarekin ez zuen gehiegizko loturarik izan. Hala eta guztiz ere, gabon sasoian gauzatzeko egokia.
- *Ehara guraso elkarteak, Barrutia ikastola eta Urtxintxa eskolak lagundu zuten saioaren antolaketan.

· *balorazioa* ·

- **IGANDEAK JAI SAIOAK** – emanaldiak, jolasak eta tailerrak -
 - Orokorrean ikuskizunen balorazio positiboa egiten da. Horretaz gain, parte hartzaile kopurua espero baino altuagoa denean zaila izaten da umeek ikuskizuna ez oztopatzea momentu batzuetan eta horretarako gurasoen kolaborazioa ezinbestekoa da.
 - Jolasek eta tailerrek oso ondo funtzionatu dute. Saioen bigarren zati honetan gurasoen parte-hartzea ezinbestekoa da, eta euren inplikazioa espresuki eskatu denean erantzuna ezin-hobea izan da.
- **FAMILIA IRTEERAK** – irteerak eta bisita gidatuak -
 - Orokorrean irteeren balorazio positiboa egiten da. Hala ere, irteeren arrakasta baldintzatu duten bi faktore identifikatu dira: alde batetik eguraldia eta bestetik Gasteizen ala Gasteiztik kanpo egin izana, bigarren hauek arrakasta gutxiago dutelarik.
- **PARTE HARTZEA**
 - Parte hartzaile kopuru aldetik balorazio positiboa egiten da, 2015eko parte-hartzaile kopurura heldu ez bada ere. Ekaineko saiora ez zen espero zen jende kopurua gerturatu eta hurrengo urteetarako ekaineko saioa irailera pasatzea baloratu beharko da.
 - Gero eta familia gehiagok hartzen du parte saio batean baino gehiagotan. Euren auzotik/eskolatik irteteko hautua egin dute hilean behin igande arratsaldean.
 - Udazkeneko/neguko saioak bereziki arrakastatsuak izan dira, ez horren beste udaberri garaikoak. Familia irteeretan eguraldiak hauen arrakasta baldintzatu du, bereziki Gasteiztik kanpokoetan.
 - Guraso euskaldunen presentzia nabarmen handitzen da.
 - Jolasak eta tailerretan haurren eta gurasoen arteko interakzioa garatzea da helburua, eta ahal den heinean, harreman hori euskaraz izatea. Urte bakarrean hainbat urrats eman da bide onean, baina garrantzitsua da familia euskaldunen presentzia bermatzea beste familiak euskaraz ere aritu daitezen.
- **FAMILIA EUSKALDUNEN LOTURAK TRINKOTZEN**
 - Auzo edota eskola desberdinetako familia euskaldunen hileko topagune bihurtu da IGANDEAK JAI. Sare hori trinkotze aldera ezagutza da aurreneko urratsa eta horretarako tresna eraginkorra dira saio hauek.
 - Euskalduntze bidean dauden guraso batzuk ere hurbildu dira, eta euskaraz

aritu dira seme-alabekin. Halaber, bikote mixtoak etorri diren kasuetan erdalduna bigarren planoan geratu da.

- Familia irteeretan ere nabaria izan da guraso euskaldunen parte hartzea. Berez, euskaraz komunikatzeko gaitasuna izatea eskatze da eta familia gehienek bete dute irteeren helburu hau.

- **GURASO ELKARTE eta AUZOKO ERAGILE EUSKALDUNEN INPLIKAZIOA**

- Hezkuntza zentroen artean inplikazio maila desberdina.
- Eskola batzuetan (berrietan batez ere) Guraso Elkartearen inguruan guraso talde bat biltzen da, nolabaiteko antolaketa dago. Kasu horietan G.E.aren inplikazioa handia izan da eta IGANDEAK JAI saioa euren programazioaren barruan sartu dute.
- Beste batzuetan, aldiz, Guraso Elkaratek ez dute funtzionamendu sendorik eta bakar batek hartzen ditu ardura guztiak. Hala eta guztiz ere, saio hauetan inguruko batzuk inplikatzen saiatu dira.
- Auzoetan ere antzeko egoera bizi da. Gasteizko auzo berrietan hainbat talde sortu da auzoan euskara sustatzeko asmoz, eta horrelakoetan, haiekin elkarlanean egin da IGANDEAK JAI saioaren zabalpenean.

Gasteizko Mintzalaguna 2016. urteko memoria



AURKIBIDEA

- Gasteizko Mintzalaguna
- 2015/2016 ikasturte amaierako balorazioa
- 2016/2017 ikasturte hasiera
 - Komunikazio kanpaina
 - Matrikulazio eta talde-banaketa
 - Mintzalagun Taberna
- 2016eko ekintza osagarriak

GASTEIZKO MINTZALAGUNA

Mintzapraktikaren oinarria, euskararen normalizazioan eragiteko xedez euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak hitz egiteko ohitura, zailtasuna edo aukera ez dutenekin elkartzea da. Helburu honekin Gasteizko hainbat txokotan elkartzen diren 5-6 lagunez osatutako taldeak sortzen dira. Aisialdian kokatzen dira harreman hauek, eremu ez formal batean, hain zuzen ere. Mintzalagun talde hauek astero duten hitzorduaz gain, hileroko beraiei zuzendutako ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera dute. Zentzu honetan, programak hizketarako jariora lantzea, motibazioa eta ohitura txertatzea eta harreman sare euskaldunak ehuntzea du xede.

Azken urteotan mintzapraktika programek garapen adierazgarria izan dute. Euskal Herri osoan 5500 lagunetik gora biltzen dira mintzapraktika programetan. Horietatik, 1000 gutxi gorabehera Araban eta 660 inguru Gasteizen.

Aurtengoa 10. ikasturtea da GEU elkarteak, Gasteizko euskalgintzaren eta beste hainbat eragileren ekimenez, Gasteizko Mintzalaguna programa abiatu zuenetik eta ordutik, Gasteizko Mintzalagunak sustatzaile talde zabala baten babesa du. Honako erakunde eta kolektibo hauek osatzen dute sustatzaile taldea: GEU elkarteak, EHE, Euskharan, IKA, AEK, Udaberria, HEO eta Hegoalde euskaltegiak, Bai & by; Mondragon Lingua eta Topagunea. Babesleak, aldiz, Gasteizko Udala, Eusko Jaurlaritza, Vital Kutxa eta Laboral Kutxa. Hala Bedi Irratia, Diario de Noticias de Alava, Radio Vitoria eta Alea laguntzaileak dira.

Aipatutako elkarte eta erakundeak guraso taldeen sustatzaileak gehitu behar zaizkio, Denon eskola, Olabide, Armentia, Ikasbidea, Odon de Apraiz, Barrutia, Toki Eder eta Adurtza ikastolak, Zabalgana, Ibaiondo, Sagrado Corazón-Karmeldarrak eta Luis Elejalde Ikastetxeak eta Koldo Mitxelena, Miguel de Unamuno, Mendebaldea eta Egibide Institutuak, alegia.

Sustatzaile talde horretatik eratu zen Jarraipen Batzordea. Azken honek egitasmoaren erabaki estrategikoak hartzeko ahalmena du eta dinamizatzaileei eta proiektuari berari ere, babes aktiboa eskaintzen dio programa gertutik jarraituz eta mintzalaguna egitasmoaren egitekoak finkatuz.

2016/2017 ikasturte hasierako datuen arabera, 663 lagun inguruk eman dute izena eta 86 mintzalagun talde osatu dira. Kopuruek gora egin dezakete, ikasturte osoan zehar internet bitartez matrikula egiteko aukera baitago.

2015/2016 IKASTURTE AMAIERA

Parte-hartze datuei erreparatuz gero, 15/16 ikasturtean jazotako gorabeherak horrela labur daitezke:

Mintzalaguna	796	79
--------------	-----	----

15/16 ikasturte amaiera (2016ko EKAINA)

15/16 ikasturte hasiera (2015ko AZAROA)

Egitasmoa	Mintzalagun	Taldeak
Mintzalaguna	698	77

Hortaz, ikasturte amaieran 97 mintzalagun gutxiago izan dira.


2015/2016 ikasturte amaierako balorazio galdetegia

Aurten galdetegia Mintzalagun egitasmoan 3 urte baino gehiago daramaten partaideei soilik bidali zaie, Gasteizen 200 mintzakide ingururi eta 56 lagunek bete dute. Bertan, besteak beste, mintzalagun ekimenean hastearren arrazoiak, helburuen eta asebetetzeen erlazioak eta euskararekiko jarreraren inguruan galdetzen zaie.


Ondorengo grafikoetan ikus daitekeen moduan, galdetegi honetan parte hartu duten lagunek beren ikaste prozesuan aurrerapena nabaritu dute eta orokorrean helburuak asebetetzea lortu dute.





Bestalde, gehiengoak eroso, lasai, ilusioz eta energiarekin sentitu da prozesuan zehar.



Nabaria da mintzalagunek euskaraz lehen baino gehiago egiten dutela egitasmoan parte hartzen dutenetik, baita konfiantza eta erraztasun handiagoarekin. Aipagarri da ere famili giroan, bikotekidearekin eta seme-alabekin, zailago izaten zaiela euskaraz aritzea.



Galdetutako mintzalagunak orokorrean pozik azaldu dira egitasmoarekin eta %95ak hurrengo ikasturtean jarraituko asmoa agertu du.



2016 / 2017 IKASTURTE HASIERA

KOMUNIKAZIO KANPAINA

Gasteizko Mintzalagunaren 2016-2017 ikasturteko matrikulazio kanpaina urriaren 3tik 24ra gauzatu da 'KONTURATZERAKO EUSKARAZ!' lelopean. Tonu alaiarekin mintzalagun eta mintzalaguntzaileak parte hartzera animatu nahi izan dira, emozioak eta bizipenak azpimarratuz. Horretarako, bideo bat egin da zeinetan tonu humoretsuan mintzalaguna den ama baten eta haren semearen etxeko elkarriketak azaltzen diren.



Kanpainako kartela.



Kanpainako bideoaren irudia.

Matrikulazioaren arrakasta bermatze aldera matrikulazio epea baino lehenago eta bitartean ere, hainbat komunikazio ekintza burutu dira programa jendartean zabaltzeko eta Gasteizko euskaldunak eta euskalduntze bidean daudenak programan parte hartzera animatzeko.

Hauek dira burututako komunikazio ekintzak:

- Prensa oharra: Kanpainaren hasieraren berri emateko prentsa oharra bidali dugu.



GEUko langileak prentsaurrekoaren ondoren.

- Face to face komunikazioa: Hitzaldi informatiboak:
 - Hizkuntza Eskola Ofizialean B1.2 mailatik gorako gela guztietan (Pio Baroja eta Lasarten).
 - AEK euskaltegian (Zadorra, Arana eta Aixkirian).
- Kartelak eta postalak
 - 250 kartel hiriko hainbat txokotan
 - 7.300 postal banatu dira

- Agerraldiak komunikabidetan

Aurreko urteetan bezala, komunikazio kanpainak iraun bitartean, hainbat komunikabidetan Mintzalaguna egitasmoaren inguruan aritu dira. Hona hemen adibide batzuk:

- Euskadi Irratian eta Radio Vitorian matrikulazio kanpainaren inguruan
- Diario de Noticias de Álavan talde batekin erreportajea.
- ALEA aldizkarian mintzalaguntzaileei elkarrizketa.
- Radio Gorbean elkarrizketa.
- Hala Bedi irratian mintzalaguna orokorrean.
- Radio Vitoriako ALEA FM irratsaioan elkarrizketa.



Mintzalaguntzaileak ALEA aldizkarian.




Mintzalagun egitasmoa Noticias de Álan

- Hedabideekin kolaborazioak
 - ALEA (prentsa oharra, albisteak, argazkiak...)
 - DNA: publizitate insertzioak.
 - Hala Bedi irratia: kuña
 - Radio Vitoria: kuña
- Whatsapp bidezko komunikazioa
Mintzalagunekin komunikazio hurbila, konfiantza esparrua eta saretzeko aukera sortzeko asmoz.


MATRIKULAZIO ETA TALDE BANAKETA

Lehenago aipatu lez, 16/17 ikasturteko matrikulazio kanpaina urriaren 3tik 24ra gauzatu da. Matrikulazio garaian, 658 lagunek eman dute izena eta 86 talde osatu dira. Matrikula guztiak jaso eta, gutxi gora-behera, hilabete eta erdiz luzatu da taldekatze prozesua.* Ikasturte honetan aurrekoan baino 43 matrikula gehiago izan dira eta egitasmoaren hasieratik izan den parte hartzaile kopuru handiena da. Aurten matrikulazio kuotaren igoera egon da, 15€tik 20€tara.

*Abenduaren 26ean jasotako datuak




- Generoa eta adina




Adinari dagokionean, mintzalagunean dagoen batz-bestekoa 45 urtekoa da. Zehazki, 45 urtekoa mintzalagunen kasuan eta 47 urtekoa mintzalaguntzaileen artean. Bestalde, parte hartzaileak nagusienak 79 urte ditu eta gazteenak berriz, 19 urte.

Mintza-LAGUNEN banaketa sexuaren arabera



Mintza-LAGUNTZAILEEN banaketa sexuaren arabera



Aurten ere, emakumeak dira nagusi Gasteizko Mintzalagunean. %76 dira emakumeak eta %24 gizonezkoak. Berriz, Mintzalaguntzaileen kasuan, datuak bestelakoak dira, %53a izanik gizonen portzentaia eta %47 emakumeena.

- Taldeen jarraipena

Mintzalaguneko teknikariek sortutako taldeak euren artean banatzen dituzte. Aurreko urteetan sortutako taldeekin bilera egiten da ikasturte hasieran. Talde berrien kasuan, prosezua oso antzekoa da baina kasu honetan teknikariak taldea elkarren artean ezagutzeko eta beraien buruak aurkezteko dinamizatzen du lehenengo bilera.

Bilera horietan mintzalaguntzailea aurkeztu, harremetarako bideak eta taldearen hitzorduak zehazten dira. Gainera talde bakoitzean berriemaile bat izendatzen da hilean behin, edo behar denean, helbide elektroniko bidez teknikariei taldearen egoeraren berri emateko.

Taldeak arazorik gabe aurrera egiten baldin badu dinamizatzailea ez da bertako kideekin berriro bilduko ekainera arte. Hori bai, esan bezala, berriemaileekin etengabeko kontaktua mantenduko da taldearen martxa ezagutzeko. Mintzalagunek emailaz jasotzen dute ekintza osagarrien inguruko informazio guztia. Aurten gainera, berriemaileei whatsapp bidez egindako difusio taldeen bitartez bidaltzen zaie ekintza osagarrien informazioa, haiek taldeetan elkarbanatu dezaten. Modu honetan komunikazioa zuzen eta eraginkorragoa dela uste da.

- Bilakaera

2016/2017 ikasturteko matrikulazio garaian 603 bat lagunek eman dute izena Gasteizko Mintzalagunean. Hala ere, epez kanpo, 55 lagunek ere eman dute izena, internet bitartez. Azken zenbaketaren arabera (abenduak 26), 658 bat lagun dira Mintzalagunean dabilzanak.

MINTZALAGUN TABERNA

Gasteizko taberna euskaldunak Mintzalagun egitasmoan parte hartzeko ekimena da. Mintzalagun taldeak non bildu eta zer egiteko askatasun osoa duten arren, gehiengo batek tabernetan elkartzea erabakitzen du.

Proiektu honen helburua, hain zuzen, mintzalagunak biltzeko hautatu dituzten taberna horiekin elkarlana sustatzea da. Era berean, mintzalagunen topagune izatea bilatzen duten tabernekin parte har dezakete egitasmo honetan.

2016/2017 ikasturtean 16 tabernekin osatzen dute Mintzalagun tabernen sarea. Gasteizko mintzalagunak taberna hauetara hurbiltzerakoan bermatua izango dute (ahal den neurrian) euskarazko zerbitzua eta hizkuntza paisaia.

Honez gain, taberna hauetan, ahal den heinean, Gasteizko Mintzalaguneko ekintza osagarriak antolatuko dira (euskarazko emanaldiak, hitzaldiak, kontzertuak...). Dagoeneko, ikasturteari hasiera emateko antolatutako 'mintza triki poteoa' hiru Mintzalagun tabernetan burutu zen, Gorbeia Bodegoian, Querida Marían eta Parralen.



Aldapa

San Bizente aldapa, 2 · Alde Zaharra

Dazz

Auzogile 60 · Alde Zaharra

El Galeon

Jazinto Arregi, 5 · Lakua

Gorbeia Bodegoia

Erremeritatu, 26 · Alde Zaharra

Hala Bedi

